

**BERARIAZKO TREBAKUNTZAREN ARRAKASTARAKO GAKOAK
ONDORIO NAGUSIAK**

Dinamizatzaileak: Naiara Etxeberria (Emun), Arkaitz Zarraga (Basauriko Udaleko euskara trebatzailea)
Bideoa: Ander Zuloaga, Donostia Unibertsitate Ospitalea.

- Ander Zuloagak, Donostia Unibertsitate Ospitaleko euskara teknikariak, bideoan esandakoen laburpena:
Trebakuntza ikastaroak, euskara ezagutza duten profesionalentzat erabilerarako pausoa emateko aukera gisa ikusi badira ere, zenbait kasutan ez da lortu aurreikusitako emaitza.

Zeintzuk izan daitezke berariazko trebakuntzaren gakoak? Anderren ustez, beharrezkoa da ikastaroaren edukien eta langilearen eginkizunen arteko hurbilpena, hau da, ikasitakoak erabilerarekin lotura zuzena izatea.

Horretarako, trebakuntzan 3 fase ondo lantzea proposatzen du:

1. Prestaketa fasea: langilearen eginkizun komunikatiboen azterketa egin (mezuak, testua, telefono bidezko harremanak,...), gaitasuna ebaluatu eta konpromisoak adostu.

2. Ikastaroa

3. Jarraipen fasea: konpromisoen jarraipena egin eta laguntza eskaini.

Orain arte, ikastaroaren faseari garrantzia handia eman bazaio ere, aurreko eta ondorengo faseetan gehiago sakondu beharra ikusten du Anderrek

- Ander Zuloagaren bideoko azalpenetan oinarrituta onak eta hobetzekoak identifikatu ditugu:

ONAK:

- Hiru faseen planteamendua zuzena da (aurrelanak/ prestaketa, edukiak eta jarraipen fasea)
- Langileen beharretara egokitzeko ahalegina ontzat ematen da
- Abiapuntua: profesionalen hasierako maila eta behar komunikatiboetatik abiatzea positiboa da
- Hasieratik konpromisoak eskatzeak protagonista bilakatzen ditu ikasleak



HOBETZEKOAK

- Erakundeko gainerako profesionalak inplikatzeari beharrezkoa litzateke
- Informazioa zehatzagoa falta da: prozedura, taldeak nola osatuko diren, jarraipena nola egingo den
- Konpromisoak eskatu aurretik hausnarketa prozesu bat bideratzea beharrezkoa litzateke
- Laneko "zirkuituak" kontuan hartu beharko lirateke, trebakuntzatik erabilerarako saltoa emateko
- Trebakuntzan dabilen profesionalei euskaraz egindako lana baliagarria eta sinesgarria dela ikusarazi beharko litzateke.

GAKOAK identifikatu ditugu HIZTUNA, HIZKUNTZA eta HIZTUN KOMUNITATEA kontuan hartuta

HIZKUNTZA:

- Zuzentasunari garrantzia kendu beharko genioke. Gizartean erreferente direnei (hedabideak, irakasleak...) eskatu behar zaie zuzentasuna, baina ez hainbeste ikasten ari direnei. Jariotasunaren aldeko apustua egin beharko genuke, beldurrak uxatu.
- Hizkuntza/ hizkera erraza eta ulergarriaren aldeko apustua
- Hizkuntza irakasteko metodologian hutsunea daukagu. Material gehiago eta egokiagoa behar da. Horretan dabilen erakundeak (HABE, unibertsitateak, euskaltegiak...) bakoitza bere aldetik dabil
- Trebatzaileak trebatzea da beste gako bat

HIZTUNA:

- Gaizki egiteko eskubidea/ askatasuna/ lasaitasuna aldarrikatu beharko genieke ikasleei.
- Hitzunari euskaraz egiteko aukera bermatu behar zaio. Ikasitakoa praktikan jartzeko gunea/k jarri behar zaizkio eskura.
- Hitzunaren motibazioan eragin behar da. Ikusarazi behar zaio zer irabaziko duen euskara jakinda.
- Jarrerak aldatzeko laguntza eman behar zaie. Eurengana hurbiltzea, bidelagun izatea garrantzitsua da euren ikas-prozesua arrakastatsua izan dadin. Konpromisoak norbanakoak ezezik, kolektiboak ere izan behar dira; hiztun- komunitateko partaide direla sentiarazi behar zaie.

HIZTUN KOMUNITATEA:

- Trebakuntza saioek testuingurua izatea ezinbestekoa da, arrakastatsua izatea nahi badugu plangintza (helburuak, epeak) baten barruan egon behar du eta erakundearen babesa/ eredugarritasuna ezinbestekoa da. Erakundeak ere konpromisoa hartu behar du.
- Plangintzaren markoa landua, lotua eta komunikatua izatea garrantzitsua da